

PRENTSA OHARRA

Durangaldeko etxerik gabeko pertsonentzako “Etxepel” proiektuaren balantzea egin du Caritasek eta, bide batez, udako jarduerak eta “Wilma” esperientzia terapeutiko hezigarria aurkezteko aprobetxatu dute.

‘Etxepel’ proiektuaren 1. Urteurrenaren harira, Caritasek zentzura deitu ditu Gizarte Komunikabideak balantzea egin eta udako jarduerak aurkezteko, hala nola, esperientzia terapeutiko hezigarri berri bat (‘in situ’ erakusketa egingo da zentroko lorategian).



BALANTZEA:

Gure eskualdean bazterkeria egoeran dauden pertsoneri (bereziki etxegabeei) erantzun integrala emateko proiektua da Etxepel. 2014ko ekainean sortua, urtebeteko bizi honetan Etxepeletik **22 pertsonari** laguntza eskaini diegu, guztiak (bat ezik) urte luzez **Durangoko** edo eskualdeko bizilagunak.

Generoari erreparatuta, 22 pertsona horietatik bederatzi emakumeak dira (%41) eta hamahiru gizonak (%59); eta **jatorriari** erreparatuta, zazpi europar erkidegoaz kanpoko etorkinak dira (%32) eta hamabost (%68) Europar Batasunekoak. Horietatik bederatzi kalean edo etxebizitza ezegokietan bizi ziren (%41) eta, egun, guztiak bizi dira baldintza duinetan.

Une honetan (2015eko ekaina), Etxepelek 19 pertsonari laguntza eskaintzen dio eta bi pisuak (Aiete plaza) **beteta** daude.

Gaur gaurkoz, Etxepel Caritasen funts propioen bitartez **finantzatuta** dago, baita bi fundazioren ekarpenen eta parrokia, pertsona indibidual zein enpresen dohaintzen bitartez ere. Azken urtean, 15.000 euro baino gehiago bideratu ditugu pertsonentzako laguntza eta maileguetara.

Lanean diharduen **giza taldea** da Etxepelen aktibo handienetakoa; une honetan hamahiru **boluntariok** eta hiru **kontratatuak** osatzen dute (bi lanaldi eta erdi), guztiak inplikazio-maila handiarekin lanean.

ORAINALDIA:

Santiagoko Bidea

Uda honetan, jarduera berezi gisa, Etxepelen zenbait ordezkari eta horien laguntzaileek **Santiagoko Bidean** parte hartuko dute astebetetz. Ilusio handiz esan digutenez, “astean zenbait ibilaldi eginez hankak sendotzen dihardute, bidean ondo prestatuta egoteko”.

Animaliekin lagundutako terapia: ‘Wilma’ txakurra, Etxepeleko beste kide bat

Duela hilabete ingurutik hona, heziketa jaso duen txakur bat ere bizi da Etxepelen; **erabiltzaile guztiek zaintzen dute** eta euren **prozesu pertsonaletarako laguntza** gisa balio die.

Wilma txakurra heriotza ziurretik salbatu zuten Zalama albaiari eta txakur-heziketa zentrokoek, txakurkumea baino ez zenean. Zainketa eta heziketa lanetan bi urtez izan ondoren, Caritasi **eman** diote txakurra.

Animaliekin **lagundutako terapiaren bitartez**, kalitate emozionala eta segurtasuna hobetzen dira, komunikazioa errazten da, konfiantza areagotzen eta oldarkortasuna murrizten dira, besteak beste. **“Wilma gu bezalako beste kide bat da Etxepelen”**, hala esan digute Durangoko zentrokoek pozik.

ETORKIZUNA:

‘Etxepel’ proiektu integralaren lehendabiziko urte honetako balantzea oro har oso positiboa izan den arren, ezin dugu ahaztu gizarte pentsioak itxita jarraitzen duela erakundeen babesaren zain (duela urtebete irekiko zuten). Caritasetik espero dugu proiektuaren beste atal hori ere martxan jarriko dela datorren urtean.

Informazio gehiago:

Carmelo Corada - Tel: 94 402 00 99 / Faxe: 94 402 00 98 - ccorada@caritasbi.org - www.caritasbi.org

NOTA DE PRENSA

Cáritas hace balance del primer año del proyecto “Etxepel” para personas sin hogar en el Durangaldea y aprovecha para presentar sus actividades de verano y una nueva experiencia terapéutica educativa: “Wilma”.

Con motivo del 1^{er} aniversario de ‘Etxepel’, Cáritas convoca a los Medios de Comunicación Social en el propio centro para hacer balance y presentar tanto las actividades de verano como una nueva experiencia terapéutica educativa de la que se hará una demostración ‘in situ’ en el jardín/huerto del centro.



BALANCE:

Etxepel es un proyecto de Cáritas de **acompañamiento integral** a personas en situación de exclusión, **especialmente a personas sin hogar**. Abierto en junio de 2014, a lo largo de este año de vida desde Etxepel hemos apoyado a **22 personas**, todas excepto una, residentes en **Durango** o en la **comarca** desde hace años.

Según su **género**, de esas 22 personas, nueve son mujeres (41%) y trece, hombres (59%); según su **origen**, siete son personas inmigrantes extracomunitarias (32%) y quince (68%), de la Unión Europea. Nueve de ellas residían en la calle o en infraviviendas (41%) y actualmente todas viven dignamente.

En este momento (junio de 2015) Etxepel acompaña a 19 personas y los dos pisos (siete plazas) están a **pleno rendimiento**.

A día de hoy Etxepel es **financiado** gracias a los fondos propios de Cáritas, las aportaciones de dos fundaciones y los donativos de parroquias, personas individuales y empresas del Durangaldea. En el último año, hemos invertido más de 15.000 euros en ayudas y préstamos personales.

Una de los mayores activos de Etxepel es su **equipo humano**, compuesto en este momento por trece personas **voluntarias** y tres **contratadas** (dos jornadas y media), todas ellas con una gran implicación.

PRESENTE:

Camino de Santiago

Este verano, como actividad especial, varios residentes en Etxepel y algunos de sus acompañantes van a recorrer una parte del **Camino de Santiago** durante una semana. Nos dicen, con mucha ilusión, que “ya estamos fortaleciendo las piernas con varias caminatas semanales para estar bien preparados”.

Terapia asistida con animales: la perra ‘Wilma’, una más en Etxepel

Desde hace aproximadamente un mes, contamos con una **perra adiestrada** que vive en Etxepel, es **cuidada por las personas usuarias** y les sirve de **apoyo en sus procesos personales**.

La perra, que se llama **Wilma**, fue salvada de una muerte segura cuando era cachorro por el centro veterinario y de educación canina Zalama. Después de dos años de cuidados y adiestramiento, ha sido **donada** a Cáritas.

Entre otros aspectos, la **terapia asistida con animales ayuda a mejorar** la calidad emocional y la seguridad, facilita la comunicación, aumenta la confianza y reduce la agresividad: “**Wilma es ya una más en Etxepel**”, comentan desde el centro durangués con alegría.

FUTURO:

Aunque el balance general de este primer año del proyecto integral ‘Etxepel’ es muy positivo en general, no hay que olvidar que la pensión social, preparada para su apertura hace ya un año, sigue cerrada a la espera del apoyo institucional. Desde Cáritas esperan que este próximo curso se consiga echar a andar también esa parte.

Más información:

Carmelo Corada - Tlf: 94 402 00 99 - Fax: 94 402 00 98 - ccorada@caritasbi.org - www.caritasbi.org